

Berrigara

EUSKARA EPAITEGIETAN



MECA BERGARAN

Amillaga 5. Tf. 943 76 40 68

clio



JARRI MARTXAN. GIDATU CLIOA. KONPROMISO BARIK



RENAULT



GUIPUZCOANA

Paketeen garraio eta banaketa

BERGARA

Tf.: 943 76 36 42

Faxa: 943 76 54 25

San Juan auzoa z/g
20570 Bergara



PAKETERIA ZERBITZU
EGUNEROKOA

- Elkartea europarrera
- +
- Suizara,
- Noruegara,
- Poloniara eta
- Hungariara



EZAGUTU ITZAZU GURE

zerbitzu berriak

- Solariuma dutxarekin
- Behin betiko depilazioa, minik gabea.
- Depilazioa argizariarekin (epela eta beroa)
- Aurpegi-tratamenduak
- Gorputz-tratamenduak (erreduktoreak, tinkagarriak, zelulitisaren kontrakoak,...)
- Presoterapia
- Zelulitisaren kontrako masajea
- Drenatze linfatikoa
- Erlajazio-masajea
- Kiromasajea
- Makilajea



INAUGURAZIOA ekainaren 22an 19:00etan. Bolu 51. 943 76 50 32.



Jaiak aparkatuta

Iñigo Iñurrategi / Ikaslea

Aurten ere joan zaizkigu jaiak. Honezkerok, aspaldiko kontua dirudien arren, batek baino gehiagok igarriko du gorputzean Pazkuetako asteburuan egindakoa (non ote da urteroko estatistika betetzeko Bideberri behera errekarra joan zitzaigun bolondres ausarta...), eta poltsikoak ere arindu makala hartu zuen. Noski, hori herrian geratu ginenon artean, aurten "Salou alternatibak" ere jarraitzaile franko izan baitu (bejondeizuela zuen kolore beltzaranarengatik).

Ez dugu suerte gehiegirik izan eguraldiarekin, baina uholderik ere ez genuen izan..., larunbat gauean izan ezik. Kanpoko jendea ere etorri da, eta Udalak horrelako kasuetarako prestatutako plangintza bereziak (ea nor aparkatzen duen Mayc-en) ez zuen arrakasta haundiegirik izan. Eta ez zen txantxetako. Herriko zenbait kale, alde bietan kotxe ilarak zeudelarik, blokeatuta geratu ziren. Ez dut pentsatu nahi zer gerta zitekeen kale horietako etxebizitzaren batean larrialdiren bat izan eta anbulantzia edo suhiltzaileak bertara iritsi

ezinik geratu balira... Izan ere, nori bururatzen zaio herri barruraino kotxez etortzea Labegaraieta edo Amillaga aldean aparkatzeko dagoen leku pilarekin?

Gure lagun batek kontatzen duen bezala, Tafallan zezenak dira jaiaren ardatza, Lekeition antzarrak, Gasteizen Zeledon eta blusak..., eta Bergaran? Zezenak, barrakak, kontzertuak, koadriak..., guztiak eta bat bera ere ez, ba-koitzak bere gustokoa, baina ez dago Bergarako jaia definituko lukeen ardatz nagusirik. Niretzat, jaiak, musika ezberdina eta zuzenean entzuteko aukera izaten dira eta Bideberriko kontzertuei afiliatua nago azken urteotan, nahiz eta

aukera hori dela eta, zenbait lagunekin arazoak ditudan, ez bainintzen Evitarren kontzertua entzutera joan...; beharbada, horregatik agertu nintzen igande eguerdiko bandaren kontzertura, Espoioian. Ez dute meritu makala hauek, bezperan juerga egin eta goizean batutaren menpe... Hori bai, Espoioira hurbildu zen jendetza dotorea ordu horretan Bideberri hurbildu izan balitz, laister egingo zuen ospa bertan zegoen zikinkeria pilatuarekin. Oraindik ez dut ulertzen nola Udalak ez duen agintzen, beste leku batzuetan bezala, Bideberri inguru guztia goizero garbitzea.

Dena dela, nik ederki pasatu ditut jaiak. Eta oraindik joan ez zareteneroi, Udaletxean dagoen Gerra Zibilari buruzko erakusketak gomendatzen dizuet, merezi du eta. Nazionalak aurten agertu izan balira Bergarara, buelta eman eta beste norabaitera alde egin beharko zuketuen aparkatzeko lekuri bilatu ezinda ibili ondoren...

San Martzialetan ikusiko dugu elkar, eta ea han giro hobea egiten digun. B

"Nazionalak aurten agertu izan balira Bergarara, buelta eman eta beste nonbaitera alde egin beharko zuketuen aparkatu ezinda ibili ondoren"

barruan



Guillermo Treku

Kontsumo teknikaria

"Kontsumoari buruzko errekamazioak, ondo informatu eta gero egiten ditu jendeak"

8. orrialdean.



M. Aurrekoetxea

Orkesta zuzendaria

"Esperientzia gutxiko musikariekin lan egitea oso gustoko dut; erronka bat da"

26. orrialdean.



Joxe Antia

Harakina

"Lan egitea asko gustatzen zait, baina denbora gehiegi ematen dut lanean"

29. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1873. Ekainaren 9an Koldo Eleizalde idazle eta hizkuntzalaria jaio zen Bergaran. Zientzi ikasketak egin eta Bizkaiko Diputazioko irakaskuntza-ikuskari izan zen. "Euzkadi" aldizkariko zuzendari izan zen. Itzulpenak, nobelak, olerkiak eta euskarari buruzko liburuak idatzi zituen. Aurten betetzen dira 75 urte hil zela eta, urteurren hori dela eta, Bergarako Udalak, Eusko Ikaskuntzaren laguntzaz, Koldo Eleizalderi buruzko liburua argitaratuko du aurki. Bergarak badu kale bat bere izenarekin.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1911. Ekainaren 10ean, ELA sindikatua sortu zen Bilbon.
1937. Ekainaren 12an, Bilboko "burdinazko hesia" apurtu zuten.

zozketak

BONO LOTO

- Eguakitzita 5**
1-16-18-32-33-34 (osag.28/er.0)
- Astelehena 8**
16-20-26-33-36-42 (osag.5/er.6)
- Martitzena 9**
1-14-20-21-27-30 (osag.9/er.7)
- Eguaztena 10**
8-12-25-26-27-32 (osag.4/er.9)

PRIMITIVA

- Zapatua 6**
6-14-25-26-36-38 (osag.11/er.2)
- Domeka 7 Gordoa**
5-9-13-27-34-36 (osag.8/er.1)

ONCE


- Eguakitzita 5:** 24.873 (K. seriea: 013)
- Astelehena 8:** 92.341
- Martitzena 9:** 65.756
- Eguaztena 10:** 54.297

BESTE BATZUK

Bedelkar, harakinak: 2.341

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Zapatu goizean hodeiak nagusituko dira eta euria egin dezake; egunak aurrera egin ahala, zerua garbitzen joango da. Domekan, antzerako eguraldia izango dugu, baina zertxobait freskatuko du. Haizeak mendebaldetik joko du.

Ilargiaren aldiak

- Ilbete: ekainak 10
- Ilbehera: ekainak 17
- Ilberri: ekainak 24
- Ilgora: uztailak 1

Eguzkia

Domeka, ekainak 14



Sortu: 05:46



Gorde: 20:48

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 4	29	16	16
Eguakitzita 5	26	16	2,2
Zapatua 6	25	15	1,7
Domeka 7	17	14	1,3
Astelehena 8	27	9	-
Martitzena 9	33	11	1,2
Eguaztena 10	18	11	5,1

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Arinddu

Pixua galdu. *Antonimoa: astundu.*

- *Poltsikuak majo arindduta etorri giñan bakaziñotatik.*

Burua arinddu.
 Burua, gutxi edo asko, galdu.

- *Osasun ona bai, baiña pixkat arindduta egon bia dau.*

- *Gure amandriak, arintzen hasi zanian, majo joten zeban panderua lapiko tapiakin.*



JOSU OKINA

hamaika ikusteko jaio ginen!

Kamararik txikiena

Canon markak, kristal likidozko pantaila duen munduko bideo-kamara digital txikiena diseinatu du. MV100 modeloak argazki-kamara konpaktu baten neurri beretsua du eta bere pisua litiozko baterien erabilerrari esker arintzea lortu dute Canonekoek. Baina gainera, 44x zooma du eta baita efektu digitalak egiteko aukera ere zaletu amorratuenezat.

Farmaziak

- Eguakitzita 12:**
CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74
- Zapatua 13:**
PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 67
- Domeka 14:**
PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 67
- Astelehena 15:**
GUALLAR. S. Antonio 5. Tf. 943 76 11 05
- Martitzena 16:**
ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63
- GAUEZ. AZKOAGA, Arrasate. 943 79 15 15
- Eguaztena 17:**
MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15
- GAUEZ. ESPAÑOL, Arrasate. 943 79 14 88
- Eguena 18:**
CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74
- GAUEZ. CORCUERA, Arrasate. 943 79 22 25

Ogia

Domeka 14: Ogizun.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

- SOS deiak
- DYA 943 78 71 57
- Gurutze Gorria 943 76 55 76
- Larrialdia 943 76 12 94
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
- Anbulantzia 943 55 49 61
- Udaltzaingoa 943 77 91 05
- Ertzaintza 943 76 53 40
- Suhiltzaileak 943 78 28 00
- Osasun Etxea 943 76 24 40
- Arrasateko ospitala 943 79 53 00
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 43
- Angiozarko medikua 943 78 90 17
- Antzuolako medikua 943 76 62 22

GARRAIOAK

- Euskotren 943 45 01 00
- PESA 902 10 12 10
- Taxiak 943 76 19 53
- RENFE 943 28 36 33

UDALA

- Udaletxea 943 77 91 00
- Udal Artxiboa 943 77 91 53
- Igerilekuak 943 76 20 53
- Kultur Etxea 943 77 91 50
- Liburutegia 943 77 91 51
- Mizpirualde Egoitza 943 76 13 60

BESTELAKOAK

- Epaitegia 943 76 14 40
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 53
- Jubilatuaren Etxea 943 76 21 40
- Postetxea 943 76 28 53

zorion agurrak



Iramtzu Lizarralde
Maiatzaren 27an
16 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Andoni Muguruza
Ekainaren 12an
9 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Jon Lazkano
Ekainaren 5ean
urtebetetzea.
Zorionak!
Cristina.



Aitor Garcia
Ekainaren 9an
3 urte. Zorionak!
Rosa eta Juan Luis.



Iosu Unamuno
Ekainaren 16an
28 urte. Zorionak!
Nobioia eta
familiakoak.



Alatz Etxeberriarteun
Ekainaren 5ean
8 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Oier Aperribai
Ekainaren 3an
7 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Jon Ander Larrañaga
Ekainaren 11n
4 urte. Zorionak!
Gurasoak eta Eider.



Ainhoa Irizar
Ekainaren 14an
2 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Marijo Frago
Ekainaren 17an
31 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Kristina Cerdeira
Ekainaren 4an
urtebetetzea.
Zorionak!
Etxekoak.



Josu Gorosabel
Ekainaren 17an
7 urte. Zorionak!
Familiakoakoen
partez.

URTEURRENA

Evaristo Txintxurreta Lete

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainak 14, goizeko 11:30etan, Santa Marinan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko familiakoek partez.

URTEURRENA

Euxebia Gorrotxategi Laskurain

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainak 14, goizeko 11:30etan, Santa Marinan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko familiakoek partez.

URTEURRENA

Esteban Uriarte Larringan

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainak 14, goizeko 11:30etan, Santa Marinan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko familiakoek partez.

ESKER ONA

Eulogia Palomero Cabrejas

1998ko ekainaren 4an hil zen, 74 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joan zinetenoi eskerrik asko familiakoek partez.

hildakoak

Eulogia Palomero Cabrejas
Ekainak 4, 74 urte.

jaioetakoak

Irati Lazpiur Barrainkua
Ekainak 2
Ander Odriozola Elkorobereibar
Ekainak 3
Leire Monux Ibarra
Ekainak 9



Mikel Alustiza
Ekainaren 6an
8 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Jose Mari Martin
Ekainaren 3an
46 urte. Zorionak!
Nekane eta Iñaki.



Jon Fernandez
Ekainaren 6an
2 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Aitzpea Egaña
Ekainaren 6an
28 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Maite Irureta
Ekainaren 9an
18 urte. Zorionak!
Institutuko lagunak.



Saio Martinez
Ekainaren 10ean
12 urte. Zorionak!
6-D1eko neska.



Roberto Etxezarreta
Ekainaren 19an
44 urte. Zorionak!
Emaztea eta Nerea.



Mikel Etxezarreta
Ekainaren 19an
2 urte. Zorionak!
Ama eta Nerea.



Borja Lopez
Ekainaren 15ean
7 urte. Urte askotarako etxekoek izenean.



Paki
Ekainaren 13an
urtebetetzea.
Zorionak!
Lagunak.

ANTZERKIA

► **Ñake** taldearen "Comicos muy peligrosos" antzezlan gaur eguakitza 22:30etan Oñatiko Santa Ana aretoan.

MUSIKA

► Jam. Gaur, eguakitza, **Sock Lenders**, 22:30etan (500 pezeta). Zapatuan, ordu berean, **Pleasure Fuckers** eta Uvi. 1.000 pezeta.

► **Zigor Gazkez** gaur eguakitza 23:00etan Pol-Polen

► **Fermin Muguruza eta Dut** gaur, eguakitza, 22:00etan Arrasateko Gaztetxean.

► **Doctor Deseo** taldearen kontzertua gaur eguakitza 22:30etan Elorrion.

► **Udaberriko Jai Kontzertua**, domekan, 12:30etan Frontoian.

► **Musika Eskolako kurtsu amaierako kontzertua**, eguenean, hilak 18, 19:00etan Zabalotegin.

ERAKUSKETAK

► "Bergara Gerra Zibilean. 1930-1939" erakusketa domekara arte Udaletxeko Pleno aretoan.

ANTZERKIA

Shakespeare osoa (Gutxi gorabehera)

Noiz: zapatuan, 22:30etan
Non: Novedades aretoan
Sarrerak: 800 PTA, 500 Gazte Txartela edo langabetu txartelarekin

Oraintsu "Dakota" antzezlan estreinatutako duen Tanttaka taldearen azkenareko lana ikusteko aukera izango da bihar Novedades aretoan. Lan honen euskarazko bertsioa joan zen uztailan estreinatutako Zornotzan eta bertan William Shakespeare idazle klasikoaren eguneratzen saiatu dira Tanttakakoak. Adam Long, Daniel Singer eta Jess Winfield estatubatuarrek 1980ko hamarkadan idatzitako lanean oinarrituta, idazle ingelesak idatzitako antzezlan ospetsuenei errepaso ematen dio Tanttakak. Beraz, ordu eta erdiko emanaldian zehar, Romeo eta Julieta, Othello, Macbeth, Lear Errega, Julio Cesar, Antonio edota Cleopatra pertsonaiak agertzen dira esze-

natokian. Guztira 40 bat pertsonaia lantzen dituzte Joseba Apaolaza ("Jaun ta jabe"), Asier Hormaza eta Niko Lizeaga ("Goenkale") aktoreek. Protagonistek denetik egiten dute: komedia, tragedia, abestu edo dantza. Patxi Barco zuzendariaren hitzetan, "komedia honetan, umorezko klabean, baina beti ere errespetu osoz, Shakespeare idazlearen lana jakitera eman nahi izan dugu. Obra ikusi ondoren, ikusleek bere lan handiak irakurtzeko gogoia eta kuriositatea izango dute".

Tanttaka taldea 1983an sortu zen eta bere lanen artean, "Agur Eire, agur", "Flaminio", "Zilbor hestea", "Kontuz, maite zaitut", "Umekeriak" edota "El florido pensil" arrakastatsua aipatu daitezke. Azken hau Estatu osoan antzeztu dute eta 100.000tik gora ikusle izan ditu. B



Joseba Apaolaza, Asier Hormaza eta Niko Lizeaga aktore ezagunak.

► **Julio Mendikuter**en argazki erakusketa Kultur Etxean hilaren 21era arte.

► **Josean San Torcuato**ren plumilak Nahikarin.

► **Dorleta Biain**en margo erakusketa Donostiako

Amara auzoko (Podavines, 4) Kimboa tabernan, ekainaren bukaerara arte.

► **Ricardo Azkargorta**ren margoak Donostiako Olaetxea galerian (Aldapeta, 5) uztailaren 14ra arte, astebaruan

17:00etatik 21:00etara.

► "Oñatiko Unibertsitatea bertako liburutegien bidez: XVI mendea" erakusketa Unibertsitateko Areto Nagusian, ekainaren 17ra arte.

Aprobetxatu oporrak
GIDA BAIMENA
ateratzeko

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Izena ematean
%10EKO BEHERAPENA
Gazte Txartelarekin

Tf. 943 76 16 63

LEHIAKETAK

► **Kirol Argazkien VIII. Lehiaketa.** Euskadin bizi den edozein afizionaturentzat. Lanak ekainaren 16ra arte jasoko dira Udal Kirol Zerbitzuan. Argibideak: 943 77 91 67 telefonoan.

DEIAK

► **Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroak** (HHI-EPA) datorren ikasturterako helduentzat Derrigorrezko Bigarren Hezikuntzako (D.B.H) ikasketak ezarriko dituela jakinarazten du. Hori dela eta, aurreinskripzio epea ekainaren 19ra arte zabalik dago. Argibide gehiago Barrenkale 33ko 2. pisuan edo 943 76 44 52 telefonoan, 9:30etatik 13:00era eta 14:30etatik 20:30etara.

► **Pol-Pol eta Aloña Mendi Taldeak** gazteei zuzenduriko mendi irteera antolatu dute Pirinioetara (Selva de Ozara) ekainaren 19tik 21era bitartean. Plaza mugatuak. Izen-ematea eta argibideak Pol-Poleko bulegoan. Tf. 943 76 48 51.

► **Jubilatupei zuzendutako egonaldiak** bainuetxe-etan edo Mediterraneoan urrian eta azaroan. Izen-ematea eta argibideak Jubilatuetan 900 43 43 43.

► **EAJren ez ohizko Uri**

Batzarra, datorren egunean, hilak 18, arratsaldeko 8etan Batzokian. EAJk dei egiten die alderdikide guztiei batzarrean parte hartzeko.

► **I. Igartza Literatur Sorkuntzako beka** idazle berrientzat. Proiektuak ekainaren 30a baino lehen bidali behar dira helbide honetara: Beasaingo Udaletxea, Euskara Zerbitzua. Loinazko San Martin Plaza. 20200 Beasain. Argibideak 943 88 90 94 telefonoan.

► **Udal Euskaltegiak** udako euskara ikastaroak antolatu ditu, ekainaren 29tik uztailaren 24ra Bergaran eta uztailaren 1etik 15era Zeraingo barne-tegian. Izen-ematea (hilaren 19a baino lehen) eta argibideak: 943 76 44 53.

► **Urruñako ikastolaren aldeko manifestazioa** domekan, goizeko 11etan, Urruñan (Hendaiatik 4 bat kilometroa).

KINTADAK

► **1958an** jaiotako enafaria ekainaren 20an, Antxonin. Izen-ematea Intxorta tabernan edo Antxonin bertan.

► **1953an** jaiotako enafaria uztailaren 4an, Antxonin. Izen-ematea (2.000 pezeta-ko aurrerapena) Antxonin bertan.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades
Torrente, el brazo tonto de la ley
Eguakitza: 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30.

ARRASATE. Alai zinema
Gattaca
Eguakitza: 22:00.

Novio de alquiler
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena: 19:00, 21:00.

EIBAR. Unzaga
El gran Lebowski
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto
El faro del sur
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

OÑATI. Santana
Novio de alquiler
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

ELORRIO. Arriola
Mercuryrising (Al rojo vivo)
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00
Astelehena: 20:00.

Wilde
Eguena, zine-kluba: 20:15.
AZKOITIA. Baztartxo
El coleccionista de amantes
Zapatua: 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

TORRENTE, EL BRAZO TONTO DE LA LEY

Zuzendaria: Santiago Segura.
Aktoreak: Santiago Segura, Javier Camara, Neus Asensi eta Tony Leblanc.

Berak zuzendutako lehen filmarekin Santiago Segurak izugarrizko arrakasta lortu du takilan, errekor guztiak hautsiz. *Torrente* (Segura bera) polizia faszista, matxista hutsa, arrazista, alkoholikoa eta Atleticoren jarraitzailea dugu. Poliziarri eta bere lagunei gertatzen zaizkienak azaltzen zaizkigu eta umorea da nagusi. Tony Leblanc-en berragerpena suposatu duen filmea.



EL GRAN LEBOWSKI

Zuzendaria: Joel Coen.
Aktoreak: Jeff Bridges, John Goodman, Julianne Moore, Steve Buscemi eta John Turturro.

Coen anaiek egindako azken komedia "zoro" honetan pertsonaia xebreak aurkituko ditugu. Boloetan jokatzea gustoko duen galtzaile talde bati, nahaste bategatik, diru mordo bat eskuratzeko aukera suertatuko zaio baina aginduko dieten lana ez da hain erreza suertatuko. Gauzak erabat okertuko zaizkie...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, ateak, manparak...



Ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa: Masterreka 14 behea BERGARA

Tf. 943 76 55 02 Faxa: 943 77 11 30

LONBIDE ONETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irla z/g ☎ 943 76 07 92

San Joxepe jubilatuen elkarteak antolatutako kontsumo eta euroari buruzko jardunaldien barruan, Guillermo Treku Erandioko Udaleko kontsumo teknikaria hizlari izan genuen astelehenean. Jende dextente hurbildu zen Jubilatuetako aretora eta Treku modu didaktikoan emandako hitzaldian, gaur egun kontsumitzaileok ditugun eskubideak erreparasatu zituen.

G. Kontsumitzaileok argi daukagu zeintzuk diren gure eskubideak?

E. Jendeak uste du ez dituela ezagutzen, kontsumo-arena urrun geratzen den eskubide bat dela, eskubide zibila edo penalariekin geratzen den moduan. Baina gero, eguneroko bizitzan, jendeak badaki zeintzuk diren eskubide horiek eta hitzaldi hauetan frogatzen dugunez, prezioak, beherapenak edota etiketatuaren gainean uste baino informazio gehiago dauka. Kontsumitzaile guztiek, nahiz eta kontsumoaren eskubidea ezagutu ez, egunero nola-baiteko harremana daukate gaiarekin eta nahikoa informazio daukate.

G. Kontsumitzailea ondo babestuta dago?

E. Nik baietz uste dut. Hainbat udaletan (Bergaran ez) kontsumitzaileen informazioarako bulegoak daude eta, horrez gain, kontsumitzaileen elkarteek ere babes hori emateko lan egiten dute. Kontsumoaren gaitetan eta Europako beste herrialdeen aldean nahiko ondo babesturik gaudela esango nuke.


G. Zer nolako lana egiten duzue?

E. Bi eratako lana egiten dugu: alde batetik, prebentzio lana kontsumitzaileei

GUILLERMO TREKU

Erandioko Udaleko kontsumo teknikaria

“Kontsumo gaitetan jendea uste baino hobeto informatuta dago gaur egun”



Guillermo Treku kontsumitzaileen eskubideak aztertu zituen astelehenean.

banatzen diegun informazioarekin, agendak, foiletokak edota kanpainen bitartez (normalean aurreko urtean kontsumitzaileen artean kezka gehien sortu duten gaiak ikutuz); eta bestetik, kontsumitzailearen defentsa aurrera eramaten dugu geratzen diren erreklamazioekin. Kasu gutxi batzuetan zigorrak ere ezartzen zaiz-

“Hainbat udaletan kontsumitzaileen informazioarako bulegoak daude eta kontsumitzaileen elkarteek ere babesa emateko lan egiten dute”

kie merkatariari.

G. Erreklamazio gehienak zein gremiorekin ematen dira?

E. Ibilgailu tailerrekin, dendaz kanpo kontratatzen diren bidaiekin (Beloradotara edota Benidormera adibidez) eta era berean, obra egin aurretik aurrekonturik aurkeztzen ez duten gremioekin (iturkinak, elektrizistak...). Gaur egungo araudiaren arabera, edozein obra egin aurretik, eskubidea daukagu idatziz aurrekontua eskatzeko eta hain zuzen, sustorik ez hartzeko, hori izaten da onena. Dena den, esan benar da ibilgailu tailerretan, tindategietan, elektragailu tailerretan eta abarretan orain 15 bat urte indarrean jarritako araudia egoki betetzen dela gaur egun.

G. Biztanleriaren zein sektore da kontsumo gaitz gehien arduratzen dena?

E. Beharbada 30 urteik 45 urte bitartekoak dira kontsumo gaitz arreta berezia eskaintzen diotenak. Bestalde, gaur egun, hirugarren adinekoen artean, kontzientziazio kanpainak bultzatzen ari dira eta orokorrean biztanlegoa ondo informatuta dago gaur. Erreklamazioak ondo informatu eta gero egiten ditu jendeak.

G. Zeintzuk dira hobetu beharreko gauzak?

E. Kontsumo bulegoak eta Jaurilaritzaren arteko koordinazioa, batez ere kostoak gutxitu eta kanpaina informatiboak bultzatzeko orduan. Bulego tipo bat sortzea ere ez legoke gaizkizoki bakoitzean kontsumitzaile zuzendutako aurrekontuaren arabera zerbitzu erberdina eskaintzen da. Zerbait eta diru gehiago zuzenduz, argi dago kontsumitzaileari zerbitzu hobea eskaintzeko zaiola. B

Astelehenean zabalduko dira bainurako kanpoko igerilekuak

Irailaren 20ra arte izango dira zabalik; barrukoak itxita

Astelehenean zabalduko dira kanpoko igerilekuak. Azken asteetan garbiketa eta zaintze lanetan jardun ondoren eta eguzkia hartzeko zelaian belarra moztu ondoren, dena prest dago udako denboraldiari hasiera emateko.

Eguraldiak laguntzen badu, irailaren 20ra arte izango dira zabalik piszinak. Aurten ordubete lehenago zabalduko dituzte eta, beraz, goizeko 9etatik gaueko 9ak arte izango da bainua hartzeko aukera.

Iñigo Larrañaga, Esther Familiar, Fernando Agirre eta Ramon Agirrezabal hartu dituzte aurten begirale lanetarako; bestalde, piszina-ko langileek oporrak hartzen dituztenean, Amaia de Arana, Aitziber Zabaleta eta Leire Gabilondok ordezkaturiko dituzte. Bestalde, eguzkia hartzeko 60 hamaika izango dira alokagai. Goizean, 15:00ak arte, 100 pezeta kostako da; arratsaldean, berriz, 200 PTA eta egun guztirako alokatuz gero, 300 PTA.

1998ko UDAL IGERILEKUETAKO PREZIOAK

	18 URTETIK GORAKOAK	18 URTETIK BEHERAKOAK
Egun baterako sarrera	550 PTA	375 PTA
10 bainutako bonoa	5.100 PTA	3.100 PTA
Urte guztirako txartela	14.100 PTA	9.200 PTA
	GUTXIENEN SOLDATA BAINO HAUNDIAGOA	GUTXIENEN SOLDATA BAINO TXIKIAGOA
Txartel familiarra 2 kide	18.700 PTA	9.300 PTA
Txartel familiarra 3 edo 4 kide	20.000 PTA	10.000 PTA

Oharra: Taulan zehazten ez baldin bada ere, langabetuei, pentsiodunei edota kanpoan ikasten ari diren ikasleei ere deskontuak aplikatzen zaizkie urte guztirako txarteletan.

Astelehenean kanpoko piszinak zabaltearekin batera, barrukoak itxi egingo dira eta ezin izango dira erabili. Halere, ekainaren 22tik 30era arte Uda kanpaina izango da eta, beraz, hil bukaerara arte, ura kloratu egingo da.

Josune Linazisorok, Udal Kirol Zerbitzuko arduradunak, iazko udako datuak eman dizkigu: 1997ko ekainean, 7.307 lagunek erabili zituzten kanpoko piszinak; uztailan, ostera, 13.809 lagunek; abuztuan, 17.485 lagunek eta irailan, azkenik, 10.007 lagunek. Beraz, iazko udan (ekainetik irailera), guztira, 48.608 lagunek erabili zituzten kanpoko piszinak.

Ikusi behar aurten zelako eguraldia egiten duen. Joan zen astean izan ziren tenporak eta Pello Zabalak esan duenez, San Ferminak arte eguraldi eguzkitsua izango dugu; hortik aurrera, ostera, sargori izango da eta ekaitzak joko du arratsaldean; azkenik, abuztuan zehar, irailaren lehenengo astera arte, estalita izango da zerua. B

Zure inbertsioak errentagarri egiteko, utz ezazu estatuko lehenengo gestore independententeak bidera zaitzan.

<http://www.abasesores.es>

AB ASESORES



Ondo inbertitzea denon esku dago

Santalaiz 6
S.Lorentzo industrialdea
Tf. 943 76 54 35
20570 BERGARA



Bergarako Akulu-AEK euskategian 6 lagun ari dira lanean. Une honetan, matrikulazio kanpainen murgilduta daude.

AEKren kontu korronteen blokeoa kendu du epaileak

Komunikabideetatik enteratu izana salatu du AEKk

Baltasar Garzon epaileak AEKren kontu korronteen blokeoa kendu zuen martitzenean. Blokeoa partzialki kentzeko emandako erabakiaren berri komunikabideen bidez jaso izana eta horren berri ofizialik jaso ez izana salatu du AEKk, prentsa ohar baten bidez. Orain dela bi aste, Iker Beristain AEKko langilea atxilotu zutenean, agindu zuen Garzonek AEKren kontuen blokeoa eta horren berri ofi-

ziazalik ere ez zuen izan kordinakundeak. "Behin eta berriro errepikatu du AEKk ez duela bere ohiko jardueraz gain, beste finantziabiderik eta erasoaldi honek guztiak AEK bere zeregin eta eguneroko errealitatearekin inolako zerikusirik ez duten beste hainbat konturekin nahasteko saio maltzurra baino ez da" dio prentsa komunikatuak; bestalde, AEKk dei bat egiten die euskaltzale guztiei "era-

soaldi berrien aurrean erne eta tinko" egoteko.

Kontu korronteen blokeoaren ondorioz, AEKko 800 irakasle maiatzeko soldata jaso barik geratu dira eta ordainketak eta kobroak ezin izan dituzte egin. Bergarako Akulu-AEK euskategian ere egoera berbera bizi izan dute bi aste hauetan. Gaur egun sei lagun ari dira lanean eta une honetan udako matrikulazio kanpainen murgilduta daude. B

Herritarren foroan amaiera ekitaldia datorren astean

Elkarrik bultzatutako Bergarako herritarren foroak datorren astean emango dio amaiera ikasturteari. Martitzenean arratsaldeko 7:30etan Kultur Etxean, Antton Karrera IU-EBko Gipuzkoako koordinatzaileak Euskal Herriko gatazkari buruz duen ikuspegia azalduko du foroak ki-deen aurrean.

Bestalde, eguenean, ordu berean, orain arte ponentziak aurkeztu dituzten alderdi politiko, sindikatu eta beste talde batzuetako ordezkariak bilduko dira eta Bergarako herritarren foroak ponentzia horien ondorioak emango ditu eza-gutzerara. B

San Martzialetakoa mahaiak datorren astetik aurrera


Aurtengo San Martzialgo erromeriarako (uztailak 5) mahaiak astelehenetik aurrera jarriko dira alogak 2.000 pezetatan. Interesa dutenek, Kultur Etxera jo beharko dute 17:00etatik 21:00etara. B

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

Etxaniz askatzea eskatu du Imanol Bolinagak Senatuan

Bere egoeraren berri eman du senatore bergararrak

Jose Mari Etxaniz bergar preso askatzeko egi-ten ari diren ekimenen artean, martitzen honetan Madrileko Senatuan Imanol Bolinaga senatoreak egin-dako ekitaldiaren berri izan dugu Victoriano Gallastegi alkatearen eskutik. Martitze-nean, atzerriko preso-egoerari buruzko mozio bat aztertu zen Senatuan eta Imanol Bolinaga bergar senatoreak, una aprobetxatu zuen Jose Mari Etxaniz-zen egoeraren berri eman, bere eskubideak aldarrikatu eta, lehenbailehen, aske lagatzea eskatzeko.




Jose Mari Etxaniz preso.

Bergizarteratzerako, presoak euren familia eta gizarte inguruetik ahalik eta

gertuen izatea beharrezkoak direla adierazi zuen Bolinagak bere interbentzioan. Bestalde, zigorraren hiru laurdenak gartzelan bete dituzten presoek kalera irteteko duten eskubidea aldarrikatu zuen eta gartzelan 18 urte eman dituen Jose Mari Etxanizen egoera ekarri zuen gogora: "Kode penal berria aplikatu eta berehala aske geratu dadila edo, Kode penal zaharra aplikatu eta baldintzapean kalera-tzea edo, bestela, bere kasua lehenbailehen aztertu dadila eskatu nahi dut" esan zuen. B

Ortega Lararen bahiketaren inguruko epaiketa

Ortega Lara espetxe funtzionarioaren bahiketaz akusatuta dauden lau lagunak kontrako epaiketa egiaztenean hasi zen Madrileko Entzutegi Nazionalean. Laurei, tartean, Jose Migel Gaztelu bergararra eta Jose Luis Erostege antzuolarra, 32 urteko gartzela zigorra ezartzea eskatu du fiskalak. Akusatuak onartu egin dute Ortega Lara bahitu zutela eta ETako kideak direla, baina funtzionarioa ez zutela gosez hiltzen lagatzeko asmorik eta berau askatzeko Gobernuaren keinu bat nahikoa zela esan dute. B



Udan
ere

Ongi etorri euskarara!

Ongi etorri Udal Euskaltegira!

1998ko udako ikastaroak

ESKAINITZA: EUSKALDUNTZE maila guztiak, ALFABETATZE eta EGA
 • **ERRITMOAK:** egunean 5 ordu, goizez • 16 urtetik gorakoentzat •
BULEGO ORDUTEGIA: goizez: 09:00-13:00 • Arratsalde: 15:00-19:00 •
IKASTAROAREN IRAUPENA: ekainaren 29tik uztailaren 24ra •
MATRIKULATZEKO EPEA: ekainaren 8tik 19ra •
BARNETEGIA: uztailaren 1etik 15era ZERAINEN.



BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA • Tel.: 943-76 44 53

Berrigara

327 zenbakia.
1998ko ekainaren 12a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97.
Faxa: 943 76 29 77
E.mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetza: Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkorobereziabar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Kiñu/Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldiakarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

ZERGAITTIK ERASO GOGOR HONEK AEK-N KONTRA?

Maiatzan 27ko gabian poliziak Iker Beristain AEK-ia atxilotu zeban. Atxiloketa honekin batera, polizia Gipuzkuako buleguan sartu eta iñungo salaketa barik eta lekuko barik, epaille baten aginduz, bulegua miatu eta AEK-ko informazio eta materiala eroan zeben. Urrengo egunian, AEK-ko kontu korronte guztiak, naziño maillakuak, blokeau, interbenidu eta enbargau zittuzten.

Gaur bertan jakin dogunez, momentuz beintzat, enbargua jaso dabe. Baiña enbarguakin segidu ezkerro, ze pasauko litzake Euskal Herri guztian ziar daren 100 euskaltegixekin eta bertan diardogun 800 irakasle eta 24.000 ikasliekin?


Duda barik, AEK eta euskerian kontrako eraso berri eta larri baten aurrian gare, azken illabetietan UA eta PPN babesian eta eren sokako komunikabidien bi-

ttartez inddartutako erasoaldixan paso berri baten aurrian.

Kontua argitu eta konpontzen bada be, kaltia einda dago.

Bergarako Akulu-AEK Euskategiko irakasliak

tira biraka: alex ugalde



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Noiz hasten zara udako oporrak gertatzen? Erabaki duzu aurten nora joan?



Narciso Millan

Urtero toki berera joaten gara. La Ribera de Calatayud-en igarotzen dugu uda. Hori bai, beste norabait goazenean, hobe da erretserba denboraz egitea.



Loinaz Olano

Oporrak neguan izaten ditut. Taberna batean ari naiz lanean eta, beraz, aurten ez dauzkat oporrik. Baina oporrak azken momentuan gertatzen ditut beti.



Manuel Sanchez

Gutxienez hiru hilabete aurretik, bestela ez da hoteletan plazarik egoten eta. Hobe denboraz ibiltzea. Aurten ezin naiz joan, katarateatik operatuko naute eta.

Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Jose Agirrek zori-
nak eman nahi dizkio Ondo Bihurtu taldeari Udaletxean ikusgai jarritako erakusketagatik. Joserren arabera, askotan kosta egiten zaigu atzera begiratu eta bere garaian garrantzia izan zuten ekintzei buruz patxadaz erreflesionatzea. Berari ondo iruditu zaio gerra denbora gogora ekartzeari. Sentsibilitate osoz eta material benetan aberasgarriarekin egin dutela esan digu Josek eta oraindik ere erakusketa ikusi ez dutenei Pleno Aretora hurbiltzeko animatu nahi die. Askotan historia kontuak baztertu egiten ditugu aspergariak izan direlakoan baina erakusketa honek kontrakoa frogatu du.



Ana Martinez

Aurten ez zait oporrak hartzea tokatzen, abuztuaren egin beharko dut eta. Baina normalean lagunok azken orduan ibiltzen gara prestaketa lanetan.



Eneko Gutierrez

Gutxienez, hilabete aurretik bai. Aurten Mediterraneo aldera joango gara eta hobe da denboraz ibiltzea lekua topatu ahal izateko, bestela nekeza izaten da eta.



Pili Gurrutxaga

Azkenengo urteetan toki berera, Zarautzera, joan izan gara eta ez dago ezer gertatu beharrik. Alde horretatik ez dugu inolako arazorik izaten.

■ ikuspuntua: **elena laka**

Nos entendemos todos

Aste honetako bertako kontua: hemen inguruko epaitegi batean epaiketa hastera doa. Paperen arabera, alderdietako bat "Ayuntamiento de Mondragon-Arrasateko Udala". Abokatuak aretoan sartu eta idazkariak bakoitzari zein alderdi ordezkatzeko duen galdetzen dio. "Usted viene por Ayuntamiento de Mondragon. ¿Y Arrasateko Udala? ¿quién viene por Arrasateko Udala?".

Euskal Herriko epaitegiak Badajozekoak bezalakoak dira eta bertako langileentzat, idazkariarentzat, epaileentzat, kasualitatezko



egiten da eta norbaitek euskaraz ezer nahi izango balu, aurrez eskatu egin behar du, itzultzailea etorrarazi eta gero, ohizkoa baino askoz denbora luzeago itxaron ondoren, bere hitzak edo bere idatzia itzuli egingo zaizkio epaitegiko langileari.

salbuespen bat izan ezik, euskara japonieraren parekoa da: nonbait hitz egiten den hizkuntza baina bertako epaitegian inolako eraginik ez duena. Lan guztia espainolez

Gertatzen da, baina, euskaldunak itzultzaia ere ulertzen duela, hau da, euskaldunok espainolez ere badakigula eta, pentsatu bai, pentsa dezakegula erabateko eskubidea dugula euskaraz atendiak izateko, baina praktika burugogorak erakusten badigu espainolez ere molda gaitetzkeela, ba, esperimenduak gaseosarekin eta, badaezpada, espainola erabiltzea hobe dugu epaitegietan.

Eta horrela segituko dugu, sartzen garen justizia bulego guztietan iskanbila sortarazi nahi ez badugu, justiziari oztupoak jarri nahi ez badizkiogu, behintzat, zeren eta total, "con lo facil que es hablar en castellano, que nos entendemos todos". B

■ asteko menua: **artekale pizzeria-jatetxea**

Lasagna labean


OSAGAIK

(4 lagunentzat)

- 100 gramo espinaka (orriak)
- 10 edo 12 york xerra (meheak)
- 300 gramo txahal okela pikatua
- Tipula bat
- Piper berdea
- Azenarioa
- Litro erdi omate saltsa
- Lasagna pasta egosia
- Basokadatxo bat ardo beltz

PRESTAKETA

- Litro erdi esnerekin bexamela prestatu eta aurretik egositako espinakekin nahastu, krema eginez.
- Tipula, piper berdea eta azenarioa okela pikatuarekin batera potxatu eta ardo beltzarekin sueztitu.
- Hau guztia tomate saltsarekin nahastu eta pure lodi itxura hartu arte ondo txikitu.
- Beste ontzi batean, tomate pixka bat ipini eta gainean kapa ezberdinak jarri, era honetan: pasta, espinaka krema, york xerra, okela purea, pasta, espinaka krema..., eta, honela, osagaiak amaitu arte. Azken kapa york urdaiazpikoarena izango da.
- Honen guztiaren gainean, gaztai xerrak ipini eta labean sartu; 200 gradura 15-20 minutuan.



LUIS ANGEL SANTIAGO
Artekale pizzeriako sukaldaria

■ adituen esanetan

Lehen eguzki izpiak

CRISTINA GARCIANDIA, *dermatologoa*

Urtero, sasoi honetan, eguzkiak zimurrak (zahartze goiztiarra) eta azaleko minbizi eragin ditzakeela gogoratu behar da. Frogatuta dago azaleko hiru minbizi motak eguzkitiko erradiazioen gehiegikeriagatik ematen direla. Duela urte batzuk azaleko minbizi kasuak 60 urtetik gorakoen artean agertzen ziren, nekazarien eta itsasgizonen artean bereziki. Gaur egun, berriz, ez da hain arraroa 30 urtekoen artean ematea.

Azaleko minbizi moten artean, "melanoma malignoa" izenekoa pronostiko txarrenetakoa duen tumorea da. Haurtzaroan izandako eguzki erredurekin zerikusia duela frogatu da eta, beraz,

haurrei 20tik gorako krema babesleak aplikatu behar zaizkie lehen eguzki izpiak agertzen diren momentutik. Bestalde, badira eguzkiaren erruz azalean agertzen diren gaisotasunak, hala nola "lupus eritematoso" edota "porfiria cutanea tarda". Era berean, bada izpi ultramoreei alergia dien jendea. Eta zenbait medikamentu ere (diuretikoak edota antiinflamatorioak) eguzkiarekiko erreakzio alergikoak sor ditzakete. Hezurretako gaitzak edota psoriasis hobetzeko eguzkia ona izan daiteke baina kontuz ibili beharra daukagu. Pertsona guztiei 15tik gorako protekzioak erabiltzea gomendatzen zaie. B

■ bergarako gordailutik

IPINARRIKO OLA

Imanol Sorondo

Egazpin Mirandaolako OLA zaharra berriro abiarazi dutenetik, ospe handia hartu du gaiak. Esan behar dugu ez zela ola gutxi gure artean ehundaka urteetan; Bergaran ere eraiki zen olategi bat. Lehendik beste hiru izan ziren.

Ipinarriagako mugetan, Arosetgitarren lurretan, Moia eta Ortegatar Juakin Iñaziok ola berria altxatu zuen XVIII. mendeko bigarren erdian. Oraindik ez ziren urte asko Mendaron, Arrasaten eta Eskoriatzan egin zituztela berriak, eta Legazpin ere altxazen ari ziren kobrea urtzeko.

Orain Moia jaunarena bukatuta dago, bi erruda nagusiak bere tokian ipintzea bakarrik falta zaio; egurra eta ikatza erabiltzen ditu eta hau Arabatik eta Nafarroatik ekartu du.; Somorrostrotik eta Mutiloatik mea haundiak. Dena prest dago.

Baina, berak dioenez, Soraluzeko Erreal Lantegiak ez du begi oner ikusten; inguruko herrietan sortu diren ola berri horiei "iskintxo" egin die, saihestu bezala, eta Bergarakoaren aurka dago. Horrela, dena hasteko prest eduki arren, gauzak konpondu zain egon behar du. Soraluzetarek diote nahikoa ikatz ez dagoela denentzat. Saltsa handia dago, eta Moia jaunak alokatu egiten du urte gutxi geroago.

Isasi-Zabaleko gizonak orain hemezortzi bat urte esan zidanez, "ola" zerrategia dagoen tokian zegoen, eta inguruko kotxe tailerra bezain luzea zen. B

Hutsen zerrenda: joan den bilean, Berrigara 322 alean, uboldetzari buruzko idazkian esaten zen bildako 24 lagunetatik 6 santamitatarrak zirela baina, 6ren ordezkopuru zuzena 16 zen.

XIII. LITERATUR LEHIAKETA

ANTOLATZAILEA: BERGARAKO UDALEKO EUSKARA BATZORDEA
 JAGIARTEAK: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
 KUTXA ERABAZITZIOA



Literatur sariak

Zapatu eguerdian Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatutako **XIII. Literatura Lehiaketako** sari banaketa izan zen Zabalotegiko aretoan. Ekitaldian San Martin Agirre, Aranzadi Ikastola edota Angiozarko Eskolako ikasleek prestaturiko bertso, kantu eta dantza saioak izan ziren. Victoriano Gallastegi alkateak, Koldo Pereira zinegotziak eta Jesus Arregi Kutzako ordezkariak banatu zituzten talde ezberdinetako sariak. Lehen taldean Mireia Amasorrain, Gabriel Guerra eta Olatz Fernandez izan ziren sarituak; bigarrenean, Alaitz Menor, Irati Altuna eta Uxue Agirre; hirugarrenean, Jone Fernandez, Izargi Vega eta Ana Moñux; laugarrenean, Irene Santamaria, Gorka Buruaga eta Nuria Fernandez eta, azkenik, nagusien taldean, Roberto Izagirrek eraman zuen lehen saria, Naiara Tabuenkak bigarrena, Andoni Rodriguezek hirugarrena eta laugarrena Samuel Garciaentzat izan zen. Olerkien sailean, Jon Sanchez izan zen irabazlea. Argazkian, saritutako guztiak. Zorionak!!

Azokako urdaiazpikoak

Oxirondo azokako saltzaileek lau urdaiazpiko zozketatu zituzten Pazkuetan eta honako hauek izan ziren saridunak: **Mari Lizarralde**, **Ines Iturriaga** (argazkian Leire Bilobarekin), **Sofia Herran** (argazkian, Bixente Okina bere senarra) eta **Klara Azkarate**. Azokako saltzaileek adierazi digutenez, hamabostero antolatuko dute zozketa bat euren bezeroen artean: afariak, bertako postuetan erosteko bonoak, e.a. zozketatuko dituzte.




Lasa, Urrezko Sukaldaria

ARGAZKIA: DV



Intxaurren ospatu berri den **VIII. Aste Gastronomikoaren** barruan, **Koldo Lasa** bergararra Urrezko Sukaldari izendatu zuten domekan izan zen afari-omenaldian. Lasarekin batera, Oñatiko Zelai Zabal jatetxea, Lezoko Industrial Salva, Donostia eta Wiesbademeko udalak eta Extremadurako Gastronomía Kofradiak ere izendapen bera jaso zuten. Ondorengo afarian 250 bat lagun izan ziren antolatzaileek jarritako karpa handian. Bildutakoek Arzak, Akelarre, Nicolasa, Panier Fleuri, Zuberoa, Martin Berasategi edota Argiñano jatetxeek prestaturiko afaria dastatu zuten. Argazkian Koldo Lasa, aipatutako jatetxeetako hainbat sukaldari ospetsu eta Odon Elorza Donostiako alkatearekin. Zorionak!!



Miguel ALTUNA institutua

1998/99 ikasturterako HEZKUNTZA-ESKAINTZA

GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena

Aurrematrikula epea ZABALIK: ekainaren 16tik 19ra

Ohiko matrikula epea: uztailaren 20tik 23ra

Ezohiko matrikula epea: irailaren 18tik 21era

HELBIDEA:

*Miguel Altuna Institutua
Ibargarai 1*

Tf. 943 76 24 91 / 943 76 38 40

*Norberaren gaitasun eta nahien arabera
egokitutako ibilbideak*

Behar diren baliabideekin

*Bide eta ate guztiak zabaltzen dituen
ikasketak*

Eskola publikoa: integratzailea eta anitza

*Berri gehiago nahi baduzu deitu gure telefonoetara eta gure
eskaintzari buruzko azalpenak emango dizkizugu*

Euskara epaitegietan

Konpontzeko dagoen auzia



Euskal Herriko epaitegietan euskarazko itzultzaileak gabeko epaiketa egiterik ez izateak polemika piztu du azkenaldian. Besteak beste, Euskal Herrian Euskaraz taldeak edota Abokatu Euskaldunen Sindikatuek neurri horren aurkako ahotsa altxatu dute, justizia administrazioak euskaldunen eskubideak bermatzea aldarrikatuz.

Momentuz, euskarazko epaiketara egitea eskatzen duten herritarrek beren hitzak itzuliko dituen itzultzailearen bitartez bakarrik egin dezakete. Ez dago itzultzaile gabeko euskarazko epaiketa egiterik. “Euskaldunontzat ez dago justiziarik” lemapean, Euskal Herrian Euskaraz taldeko kideek hainbat ekintza burutu dituzte neurri horren aurka protesta egiteko. Joan zen maiatzaren 21ean ere

“Epaitegietan euskarak bizi behar du” zioen pankarta bat erakutsi zuten Bergarako Epaitegiaren aurrean epaileen euskalduntzea eskatzeko. EHEkoen ustez, “justizia administrazioa euskaldunen eskubideak zapalduak izan daitezten erata dago. Gaur egun indarrean dagoen legediarekin ez dira euskaldunen eskubideak kontuan hartzen. Eskubideak bermatu beharrean kontrako egiten da. Herri honi bere hitza

kendu nahi zaio eta ez dago fororik, lekurik gure hitza azaltzeko”.

Epaiketetan itzultzaileak erabili behar izateagatik polemika areagotuz joan da eta itzulpen zerbitzua onartu ez duten hainbat akusaturen abokatuak desobedientzia delitua leporatu zaie. Iñigo Elkoro bergarar abokatuari ere milioi bat pezetako isuna jarri zioten, epaileak eta fiskalak euskara ez zekitelako, Donostiako Probintzia Entzute-

gian epaiketa bat utzi ondoren. Bergarako Euskal Herrian Euskaraz taldeak auzi horren inguruko mozioa aztertze-ko idatzia aurkeztu zuen Udaletxean, "udal batzarra abokatuak hartutako erabakiaren bat etortzea, milioi bateko isuna Udalak bere gain hartzea eta gure hizkuntzarekiko jarrera baztertzaila salatzea eta euskaldun bezala ditugun eskubideak errespetatzeko" eskatuz. Mozioa oraindik ez da Udaletxean aztertu.

Epaile euskaldunak

Itzultzaileak ez onartzeari ekin zion abokatu talde batek Abokatu Euskaldunen Sindikatua sortu zuen iaz. Luis Barinagarrementeria sindikatuko koordinatzailearen hitzetan, "gure defendatu euskaldunek gaztelaniazko hitzune- kuden garantia eta eskubide berak izatea eskatzen dugu. Horrek epaileek euskaraz ere jakitea dakar".

Epaileek euskaraz jakiteko eskaerak polemika piztu du, legeak ez baitu euskara jakitera derrigortzen justizia funtzionarioa.

Mari Jose Galindo donostiarra Bergarako Epaitegiko epaile dekanoa du. Bergarara etorri aurretik Tolosako Epaitegian izan zen lanean. Berak azaldu digunez, "jendeak eskatzen badu, edozein epaiketa itzultzailea erabiliz, euskaraz egiteko aukera dago Bergaran baina, egia esan, horrelako eskaera gu- txi izaten ditugu. Bergaran epaiketa pe-

nalak, delitu txikiko falten epaiketak egiten dira bakarrik eta norbaitek euskaraz egitea eskatzen badu itzultzailearekin egiten da beti. Era berean, prozeduretan idazki asko dago eta euskaraz egitea eskatu izan dugutenean gaztele- raz eta euskaraz egiten dira idazkiak".

Bergarako Epaitegian 40 bat langile daude, Euskal Herrikoak gehienak. Lau epaitegi dira Bergaran eta lau epaile- tati bi kanpotarrak dira, Madrilekoak hain zuzen. Langileen artean euskaraz dakitenen kopurua nahiko altua da. Eusko Jaurlaritzak aukera ematen die euskarazko klaseetara joateko eta ber- tako langileen arabera lehen baino as- koz gehiago egiten da euskaraz berba epaitegian. Hala ere, herritarren alde- tik, eskaera gutxi jasotzen dira inpres- o- ak etabarrak euskaraz jasotzeko, horre- tarako aukera eskeintzen den arren; "espediente guztiak gaztele- raz egiten dira jendeak espreski euskaraz egitea eskatzen ez badu. Askotan gainera,

***"Epaileengana asko zuzen-
tzen ari da polemika. Baina
epaiketa batean parte
hartzen duten guztiak jakin
beharko lukete euskaraz
epaiketa euskaraz egiteko"***
MARI JOSE GALINDO

euskaraz eginez gero, prozesua nahiko luzatzen da" komentatu digute epaite- gian. Hala ere, Galindo epaileak azpi- marratzen duen moduan, "badira eus- kara maila altua duten funtzionarioak eta ikasten ari direnen kopurua ere nahiko altua da. Beraz, askotan herritarrekin izaten diren harremanak euskaraz egi- ten dira".

Justizia euskalduntzeke

Oraindik ere epaiketak euskaraz egitea nekez ikusten du Galindo epai- leak; "egun batetik bestera jende guz- tiak euskaraz jakitea oso zaila da. Epai- leengana asko zuzentzen ari da pole- mika hau baina epaiketa penal batean, epaileaz gain, fiskalak, epaiketan esa- ten den guztia aktan jasotzen duen idazkari judicialak, peritoek, testiguen eta jende askok hartzen du parte. Be- raz, epaiketa bat euskaraz egin ahal izateko, epaiketan parte hartzen duten guztiak euskaraz jakin beharko lukete eta momentuz ez dut posible ikusten. Etorkizuneko belaunaldi batekin agian bai, baina gaur egun ezinezkoa da. Nik ondo ikusten dut legean jasotzen den eskubide horren alde borrokatzea bai- na uste baino arazo konplexuagoa da".

1982ko Euskararen Normalkuntza- rako Legeak ez du eragin handirik izan justizia administrazioan. Komunikabi- deetan zabalduetako datuen arabera, 12 dira deklarazioak euskaraz egiteko au-



Alboko argazkian, Mari Jose Galindo Bergarako Epaitegiko epaile dekanoa. Beste orrialdean, Euskal Herrian Euskaraz taldeak euskaraz epaitegietan bizi duen egoera salatzeko Bergaran antolatutako ekitaldietako bat.

kera ematen duten epaileak. Bestalde, Gipuzkoan diren abokatuetatik %23a dago alfabetatua. Galindok aitortzen duenez, "justizian beste administrazio-tan baino gutxiago aplikatu da Euskararen Normalkuntza Legea. Beharbada justiziaren inguruan jende asko dagoelako ez da aurrera egin. Baina konziente gara lege hori hor dagoela eta lege horren arabera herritarrei justizia erakundeetara euskaraz zuzentzeko aukera ematen zaie. Epaileok Ministeritzaren menpe gaude eta, oposizioez gain, ezin digute esijitu Estatuko hizkuntza guztiak jakitea. Dena den, hemendik aurrera, transladuetarako euskara jakitea baloratzea onartu da. Gero eta gehiago baloratzen da hori". Epaiketetan erabiltzen den itzultzailearen figura egokia iruditzen zaio Galindori, "baliteke itzulpenarekin zerbait galtzea baina itzultzailea ona bada uste dut mundu guztiaren eskubideak bermatzen direla. Alde guztien borondate onarekin aurrera egin dezakegu".

Itzultzailea onartu ez

Epaiketetan itzultzaileak erabiltzea errefusatzeko duten abokatuaren iritzia bestelakoa da. Luis Barrinagarrementariaren arabera, "indarrean dagoen lege-diaren arabera, oinarrizko eskubide batzuk urratzen direlako ez dugu epaiketetan itzulpenik onartzen. Konstituzioa, Autonomi Estatutua eta Europa mailan



dagoen legedia eskuan, euskal hiritarrek eskubide osoa dauka bere defentsa euskaraz egiteko, erdaraz egiten duen bezala. Nahiz eta koofiziala eta hori guztia izan, euskaldunek itzultzaile

lea behar dute epaiketetan eta praktikan, itzultzaileak defentsa eskubidea ahuldu egiten du".

Barinagarrementeriak ez du uste epaiketako alde guztiek euskaraz jakin beharrik dutenik; "jakingo balute hobe, baina guk epaileek euskaraz jakitea eskatzen dugu. Alegia, fiskalek edo beste abokatu erdaldunek itzultzailea behar badute, erabil dezatela, hori ez dugu ukatzen. Ez dago epaileek euskaraz jakin behar dutela dioen legerik. Epailegotza Madrildik dator. Benetako arazoa hori da, mugikortasuna, dependentzia, batasun juridikozionala. Gaur ere kolonizatuta gaude, gurea den hizkuntza erabiltzeagatik alboratuta". **B**

"Oinarrizko eskubide batzuk urratzen direlako ez dugu epaiketetan itzulpenik onartzen. Gaztelaniako hiztunen eskubide berak aldarrikatzen ditugu"
BARINAGARREMENTERIA

Justizia administrazioa euskalduntzeko oztopoak

Nekane San Miguel arrasatearrak zazpi urte daramatza epaile lanetan. Galizian eta Tolosan lanean izan ondoren, gaur egun Bilboko Epaitegian ari da. Araba, Gipuzkoan eta Bizkaian deklarazioak euskaraz egiteko aukera ematen duten hamabi epailetako bat da. Bere hitzetan, "nik uste dut bi hizkuntza dauden herrialdeetan herritarrek eskubide osoa dutela eurenganako arreta guztia euskaraz zein erdaraz jasotzeko. Sistema asko dago horretarako baina justiziakoa sare konplexua da eta askotan epaileak euskaraz jakitea ez da nahikoa. Hiritarren eskubide hori bermatzeko tresna guztiak jarri behar dira". Nekane San Miguelen iritziz gaur egun justizia administrazioa euskalduntzeko oztopo asko dago; "alde batetik jarrera pertsonalak eta bestetik legea bera. Legeak ez du obligatorik jartzen hor gaudenok euskaraz jakin dezagun. Eta legeak esijentziarik planteatzen ez duen bitartean

zaila da administrazioa euskalduntzea". Momentuz, epaiketetan erabiltzen den itzultzailearen figurarekin konformatu beharra dago; "nahiz eta itzultzailea erabiltzea egokiena ez izan, gaur egun beharrezkoa da. Behin behineko soluzio bezala ondo ikusten dut, baina ez betirako". Goian aipatu bezala, San Miguelek epaiketetan euskaraz deklaratzeko aukera ematen du baina bere esanetan ez dira asko eskaera hori egiten dutenak; "jendeak ez du eskaera hori egiten badakielako gai horren inguruan giro ona ez dagoela. Epaiketa bat izatea nahikoa arazo izaten da oraindik ere beste arazo bat gehitzeko. Jendeak badaki, euskara eskatzekotan, epaileak edo funtzionarioak (edo biek) holako jarrera ezkorra erakutsi dezaketela eta arazo gehiago sortu ez dadin, eskubide horri uko egiten zaio. Baina eskaintza hori bi hizkuntzatan eta berdintasun osoz etorri beharko litzateke". **B**

I P I N T Z A K O

futbol txapelketa

partiduak

NESKAK

Eguaztena 17

- 19:15: Komando Piperrak-Azkenak
 19:15: Baleike-Las Rascamantas
 20:30: Gamma Rai-Eztaki
 20:30: Potzu Ta Zapaburuak-Biko Bokategia

MUTILAK

Eguakitza 12

- 19:15: Mongatxurak-Facuta
 20:30: La Juve-Fo Fo

Astelehena 15

- 19:15: Osintxu-Game Over
 20:30: Gu Geu-Bildurbarek Opel/Lam

Martitzena 16

- 19:15: La Beccia Kukuxumuxu-Altos Pornos
 20:30: A Ze Flaxa/La Guipuzcoana-Intsert Koin

Eguena 18

- 19:15: Ezinleike-Matxakategi
 20:30: Xurruapak-Arloteak/Oilagorra

emaitzak

NESKAK

Azkenak-Baleike	0-5
Eztaki-Potzu Ta Zapaburuak	1-3
Biko Bokategia-Gamma Rai	3-3

MUTILAK

Manitou-Angiozar	5-3
Shaktale-KIB	3-1
Facuta-La Juve	3-2
Mongatxurak-Amilotx	2-0
Bildurbarek Opel/Lam-Altos Pornos	5-3
Game Over-Gu Geu	2-2
Osintxu-La Beccia Kukuxumuxu	7-1
Matxakategi-Arloteak/Oilagorra	2-1
Intsert Koin-Ezinleike	3-0
A Ze Flaxa/La Guipuzcoana-Xurruapak	1-2

jokoz kanpo



Joana Aranburu
GAMMA RAI

- G.** Zer iruditzen zaizu aurten neskei jokatzeko aukera ematea?
E. Ondo. Mutilek jokatzan badute, neskek zergatik ez?
G. Zer da zure taldeko gauzarik txarrena?
E. Ez daukagu gauza txarrik. Ia guztiok koadrilakoak gara. Une honetan, 9 lagun gaude eta jokalaria beharrean aurkitzen gara.
G. Labegaraietako txapelketan bazabiltza?
E. Bergaran jokatzan aritu naiz eta ez nuen astirik.
G. Nola zabilzate Ipintzan?
E. Partidu bakarra jokatu dugu eta berdindu egin genuen. Uste baino hobeto jokatu genuen.
G. Zein da faborito nagusia?
E. Txapelketa hasi berri da eta, oraindik, ez daukat faboritorik.
G. Zer taldetako zara?
E. Realekoa.
G. Jarraitzen duzu futbola?
E. Ez gehiegi.
G. Jokalari gustokoena?
E. Stoichkov.
G. Eta guapoena?
E. Iker Sarriegi.
G. Jarraituko duzu Mundiala?
E. Ez. Partidu gehiegi eman dituzte dagoeneko.

nesken futbitoia

Zapatuan, Miguel Altuna Institutuan

12:00: The Road Island-Potzu ta Zapaburuak

Domekan, Labegaraietan

16:30: Nifis-Zutaz Pentsatzen
 17:30: Gu Geu-The Road Island

Oharra

Nahiz eta ohizkoa ez izan, zapatuko partidua Miguel Altuna Institutuan jokatuko da.

sailkapenak

A multzoa

	P	J	GA	GR
1. Manitou	3	1	5	3
2. KIB	3	1	3	
3. Shaktale	0	1	1	
4. Angiozar	0	1	3	5
5. Etengabe	0	0	0	0

B multzoa

	P	J	GA	GR
1. Mongatxurak	3	1	2	0
2. Facuta	3	1	3	1
3. La Juve	0	1	2	3
4. Amilotx	0	1	0	2
5. Fo Fo Fo	0	0	0	0

C multzoa

	P	J	GA	GR
1. Osintxu	3	1	7	1
2. Bildurbarek Opel/Lam	3	1	5	3
3. Gu Geu	1	1	2	2
4. Game Over	1	1	2	2
5. Altos Pornos	0	1	3	5
6. La Beccia Kukuxumuxu	0	1	1	7

D multzoa

	P	J	GA	GR
1. Insert Koin	3	1	3	0
2. Matxakategi	3	1	2	1
3. Xurruapak	3	1	2	1
4. Arloteak/Oilagorra	0	1	1	2
5. A Ze Flaxa/La Guipuzcoana	0	1	1	2
6. Ezinleike	0	1	0	3

Neskek, kadeteak

	P	J	GA	GR
1. Baleike	3	1	5	0
2. Azkenak	0	1	0	5
3. Las Rascamantas	0	0	0	0

Neskek, nagusiak

	P	J	GA	GR
1. Potzu ta Zapaburuak	3	1	3	1
2. Biko Bokategia	1	1	3	3
3. Gamma Rai	1	1	3	3
4. Eztaki	0	1	1	3

golegileak

1. Gorka San Vicente	Osintxu	6 gol
2. Karlos Lasa	Bildurbarek Opel/Lam	2 gol
3. Fernando Agirrebeña	Altos Pornos	2 gol
4. Gorka Aiestaran	Manitou	2 gol
5. Iban Blanco	Manitou	2 gol
6. Josu Otaegi	Xurruapak	2 gol

Frantziatik zuzenean



AGUSTIN ARANZABAL, selekzioaren kontzentrazioetik



AGUSTIN ARANZABAL
Chantilly, Frantzia

Eguakitzean heldu ginen Chantillyra, lehenago Puente Viesgon eta 10 bat egun eman ondoren. Dagoeneko aste bat daramagu Frantzian eta aldaketa handia somatu dugu: Puente Viesgon, esaterako, egun osoa kazetariz eta jarraitzailez inguratuta geunden eta hemen, berriz, lasaitasun handia nabari dugu. Frantziara heldu ginen egunean, Air France hegazkin konpainiakoak greban zeuden baina, zorionez, ez genuen arazorik izan: hegazkinean 15 minutu besterik ez genuen itxaron; piketeak omen zeuden.

Bestalde, Frantzian egunak nahiko lasaiak dira. Bederatzi eta erdiak inguruan ohetik jaiki eta 20 minutuko paseoa ematen dugu. Ondoren, 10:00ak aldera, bazkaltzera joaten gara. Ordutegi arraro samarra izan arren, nahiko azkar ohitu garela uste dut goizean espagetiak jatera. Ondo bazkaldu ondoren, 14:30ak aldera, entrenamendua izaten dugu. Normalean ordu eta erdikoa izaten da eta, dutxa hartu ondoren, merienda.

Zapatuan jokatuko duten Nigeriaren kontrako partidurako egun bat falta delarik, Agustin Aranzabalek Mundialari begira izan duen lehen inpresioa kontaktzen digu: lehenengo astea Frantzian.

Denbora librean, telebista ikusten eta jolas-makinak dauden gela batean igarotzen dugu. Golf zelai bat ere badago eta batzuetan piska bat praktikatzea edo paseatzea ez dator gaizki. Oraindik ez dugu herria ikusteko aukerarik izan.

Entrenatzen ez dugunean, denbora guztia hotelean igarotzen dugu eta hoteleko jende guztiak gazteleraz dakienez, ez dago hizkuntza arazorik. Puente Viesgon bezala, Ivan Camporekin nago logelan. Bakarrik edo norbaitekin egoteko aukera eman ziguten baina laguna dudanez..., norbaitekin egotea beti eskertzen da.

Dagoeneko, Mundialean debutatzeko gogoia nabari da jokalarien artean. Astea luzea egin zaigu eta Nigeriari buruz bideoak ikusi eta afrikarrek nola jo-

katzen duten aztertzen aritu gara. Zoritarrez, ez dut Mutiurekin, Realeko taldekidearekin, egoteko aukerarik izan. Esan bezala, hoteletik kanpo, ez dugu inorekin eta ezerrekin kontakturik eduki orain arte.

Biharko partidua jokatzeke aukerak izan arren, oso zaila ikusten dut hasierako hamaikakoan zelairatzea. Dena dela, Clementek gaur, eguakitza, emango digu bere asmoen berri eta ikusi beharko dugu. Multzoko talderik arriskuetsuena Nigeria dela uste dut eta partidu hau irabazten badugu, gauzak ondo joan daitezke, moral handia emango baitigu garaipenak. Jokalarien artean mundiala irabazteko aukera haundiak ditugula entzuten da. Taldea oso egokira onean dago.

Dena dela, oso gustora egon arren, egunak doazen heinean, presioa eta urduritasuna handitzen doaz. Zorionez, familiakoak Frantziara gerturatuko dira zapatuan, Nigeriaren aurkako partidua zuzenean ikustera.

Mundial batean jokatzea gauza berezia eta handia da. Beharbada Real Madrid bezalako talde batean dabilzanak ohituta daude horrelako hotel eta tokietan egoten baina Realeko jokalaria batentzat ez da egunero egiten den zerbait. Beno, ea zer gertatzen den zapatuko partiduan. Datorren asteko BERRIGARAN gauza gehiago kontaktuko dizkiuzet. Hurrengora arte! B

"Frantzian egunak nahiko lasaiak dira. Goizeko 9:30ak inguruan ohetik jaiki eta 20 minutuko paseoa ematen dugu. Ondoren, bazkaltzera joaten gara"

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK	PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA	HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA	IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32


Irizar 2
☎ 943 76 14 95
JAUJA KIROLAK

Zabaletak erraztasun haundiz irabazi zuen Gorlako Igoera

Jaizkibeleko martxari jarraituz, Aitor Zabaletak ez zuen inongo arazorik izan Gorlako Igoeran parte hartu zuten gidariei aurre hartzeko.

Lehen txanda hasi baino lehen, entrenamenduetan hain zuzen ere, alde handia atera zien gainontzeko pilotoei. Aitorrek, (Lola BMW-Emec) korritutako bigarren txandan lortu zuen denbora onena, 02:56.57 hain zuen. Rafael Bereinkua, bigarren sailkatuak, 03:03.57 denbora egin zuen eta Lebeiti hirugarrenak, 03:09.90. Alberto De Lucas eta Javier Bretaina bergararrek zortzigarren eta bederatzigarren postua eskuratu zuten. German Hernandezek entrenamenduan istripu txiki bat izan zuen eta ezin izan zuen lasterketan parte hartu. Eguraldiak lagundu ez arren, 3.000 ikusle inguru gerturatu ziren Gorlako Igoerara.

Bergaran, kotxezaletasuna gero eta handiagoa da eta gainera, maila handiko gidariak sortzen ari dira. Hona hemen Gorlan korritu zuten bergararrak:

Aitor Zabaleta

1995etik 1997ra Espainiako txapeldun izan da. 1990tik, 1993ra txapeldun ordea izan zen eta 1994an Kanarietako txapelketa irabazi zuen. Bestalde, eta hainbat alditan, Euskadiko txapeldun ere izan da. Ez da makala ez Aitorrek lorturikoa. Domeka honetan Asturiasera joango da Espainiako Txapelketa korritzera,



Zabaleta, Bereinkua eta Lebeiti: VIII. Gorlako Auto Igoerako podiuma.

eta ekainaren 21ean, Oñatin, Euskadiko Txapelketari dagokion Udanako Igoera korrituko du.



Alberto de Lucas

Zortzi urte darama errepideetan, hiru urteko etena izan arren. "Joan zen denboraldian arazo handiak izan nituen kotxearekin. Kotxea aldatu nuen eta zorionez, aurten puntu puntuan dago". Arraten, Lesakan, Iturretan eta Jaizkibelen ibili da. "Arraten esate-

rako, nere multzoko bigarren gelditu nintzen eta scrachean (sailkapen orokorra) hamargarren". Iturretan, berriz, laugarren izan zen eta Jaizkibelen ere lan polita egin zuen. "Gustokoen dudan ibilbidea, Urrakioa da".



Javier Bretaina

Duela sei urte hasi zen lasterketak korritzen. Eten luze bat izan ondoren, aurten berriro ere martxan jarri da. "Abiadura betidanik

izan dut gustoko eta horregatik hasi nintzen".

Arrate, Jaizkibel, Urbasa eta Lesakako rally batean egon da. Azken honetan, arazo mekanikoak zirela eta ezin izan zuen parte hartu. Rally eta igoeretan korritzen ari da eta lehen eta bigarren postuak lortu ditu orain arteko lasterketa batzuetan. Barketak baino, bestelako kotxeak ditu nahiago. "Segurtasun handiagoa dute itxita dauden kotxeek. Buzia kanpoan izateak ez dit batere graziaz egiten".



German Hernandez

Aurten hasi da rallyak eta igoerak korritzen. Rallyetan gustorago ei dabil. "Gehienbat rallyetan hartu dut parte". Lesakan, Azpeitian, Gasteizen, Gernikan eta Jaizkibelen aritu da. Gernikan esaterako, zortzigarren postua lortu zuen. "Nere kotxea, potentzia handiko kotxeen multzoan sartzen da abiadura-kaxa berdina erabiltzen dudalako, baina potentzia falta zaio. Dena dela, herrian korritzea atsegin dut eta Gorlako Igoera urtero egiten bada bertan izango naiz. Bestalde, jarraitzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkiet, azaldutako jarreragatik". B

Bar Canalejas play-offetan irabazle

Joan zen larunbatean, Labegaraietako Futbito Txapelketako play-offetako finala jokatu zuten, Mongatxurra eta Bar Canalejas taldeek. Azken hauek erreztasunez irabazi zioten Mongatxurra taldeari 2 eta 6ko emaitza lortuz. Datorren igandean, Mongatxurra taldekoek Kopako finalari aurre egin beharko diote. Oraingoan, Manitu taldearen kontra izango da, zapatuan, 19:00etan Polikiroldegian. B



Bar Canalejas eta Mongatxurra taldeetakoek zapatuan jaso zituzten txapeldun eta txapeldunorde sariak.

2. mailako jubenilak txapel barik



Bigarren mailako jubenilak Arrasateren kontrako partidua irabazi ondoren.

Ligan zehar lehen postua lortu arren, mahoneroek ezin izan zuten Eibarren aurkako partiduan txapeldunaren saria jaso. Dena dela, bergararrek ez zieten Eibarkoei partidua errez jarri. Luzapena jokatu zuten eta partidua amaitzeko bi minuturen faltan, eibartarrek garaipenaren gola egin zuten. Hala ere, Bergarakoek izan zuten zer ospatu partidu ostean. B

Lagunak-eko federatu probak

1979-1983 bitartean jaiotako mutilek, Bergarako Lagunak areto-futbolearen jubenil taldean federatzeko aukera izango dute. Probak larunbatean izango dira, 16:30etan, Labegaraieta Kiroldegian. B

Denontzako VI. Kirol Jaia zapauan

Deba Garaiko Mankomunitateko kirol zerbitzuak Denontzako kirol jaia antolatu du seigarren urtez. Zapatuan izango da goizeko 10:00etan, Bergarako kiroldegian. Besteak beste, kirol eta jolas hauek praktikatzeko aukera izango da: aerobica, boccia, badmintona, esku pilota, boloak, slalomna, scalextrica eta golfa. Zapatu goiza modu berezian igarotzeko aukera denon eskura. B

Gimnastak Euskadiko Txapelketan bikain

Joan zen igandean, Polikiroldegian Euskadiko Gimnasia erritmiko Txapelketa jokatu zen. Bergarako gimnastek lan bikaina egin zuten. Ane Miren Fernandez eta Jaione Igartua 2. postuan sailkatu ziren eta horrek Espainiako txapelketera joateko aukera eman die.

Bestalde, Aintzane Narbaez eta Azahara Gonzalezek (zutik, ezkerrekoa eta erdikoa) 8. postua eskuratu zuten. Leire Lasa, berriz, hirugarren sailkatu zen eskola kirolean.



Ane Miren Fernandez eta Jaione Igartua (makurtuta) Espainiako Txapelketarako sailkatu dira.

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Pisua salgai S. Pedron.
943 76 52 72.

Pisua salgai Deban.
943 19 18 40
(Mari Karmen).

Barrenkalean aparta-
mentua. 943 76 56 41.

Etxea salgai Osintxun.
Erdi-amueblatua.
943 76 49 74.

Pisua salgai San Anto-
nion. Deitu 943 76 56 20
telefonora.

Pisua salgai Mekolal-
den. 943 76 05 79.

Pisua salgai Antzuolan.
Amueblatua.
943 76 62 52.

Erosi

Erreformatik gabeko
pisua erosi nahi dut.
943 76 30 57.

Errentan emateko

Pisua alokairuan
Alcoceber-en udan.
943 76 12 14.

Pisua alokairuan
Laredon, udan.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. AUTOAK/
MOTOAK**

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatua
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

943 76 13 86 (gauez).

Errentan hartzeko

Pisua hartuko nuke
alokairuan. Deitu
943 76 72 00 telefonora
(Joana).

Pisua alokatu nahi dut.
943 76 30 57.

Pisua edo logela aloka-
tuko nuke uztailetik
aurrera. 943 74 44 44
(lanorduetan).

Pisua hartuko nuke.
943 76 32 57 (David)

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea salgai
Torrekuian. 2 plaza.
943 76 28 24.

Salgai Burdiñaten.
943 76 40 74.

Aranerreka (2 plaza
itxita). 943 76 06 96.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Masterreka. 943 76 2457.

Salgai. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Garaje bikoitza S. Lo-
rentzun. 943 76 58 00.

Errentan emateko

Garalea alokairuan Ara-
nerrekan. 943 764654.

Poligonoa. 943 76 32 58.

Ibargarai. 943 76 16 38.

Burdiñate. 919 80 2606.

Burdiñate. 943 76 0660.

Errentan hartzeko

Garajea/ganbara
alokatuko genuke.
943 76 50 00.

Garajea alokatuko
nuke. 943 76 05 17.

Burdiñate inguruan
garajea alokatuko nuke.
943 76 70 63.

3. LOKALAK

Saldu

Lokala salgai edo alo-

kairuan Masterrekan.
150m². 943 76 11 89.

A. Flemingin.
943 76 00 84/35 63.

Lokal komertziala salgai
Martokoan. 943 76 25 67.

Taberna bat salgai edo
alokairuan Antzuolan.
943 76 60 16.

Errentan emateko

Lokala alokairuan.
943 76 35 09.

4. LANA

Eskaintzak

Zaharrak zaindu edo
etxeko garbiketarak egin-
go nituzke. 943 76 00 90.

Kliniko laguntzaileak
gaisoak/helduak zain-
tzen ditu. 943 76 64 47.

Neskak orduka lan egin-
go luke. 939 47 25 84.

Haurrak zainduko
nituzke. 943 76 04 34.

Lanak ordenagailuz
pasatzen ditut.
943 76 38 71 (Larrañeta).

Neska euskaldun batek
haurrak zainduko
lituzke. 943 76 56 92.

**PUBLIZITATE
SALTZAILEA**

BEHAR DA
JARDUN ELKARTEAREN
PROIEKTU BEREZI BAT
BULTZATZEKO.

Bidali Curriculum-a
ekainaren 22a
baino lehen.

JARDUN Elkarte
Kartzela Zaharra
20570 BERGARA
Tf. 943 76 08 19
F. 943 76 2 9 77



**Zerbitzaria
behar da**

Esperientzia
kontuan hartuko da

Tf. 943 76 07 92

**NESKA BEHAR DA
DENDAN
LAN EGITEKO**

Baldintzak:
Euskalduna
Esperientziaduna
Josten dakiena

Tf. 943 76 05 37

**ANTXONI
jantetxeak**

jantokietan
esperientzia duen
zerbitzaria behar du.

Euskara jakitea
kontuan hartuko da

Tf. 943 76 20 40

IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

**MAHER
Biltegiak L.E.**

Oihal etxea

Bidekurutzeta 29
943 76 22 90 - 943 76 26 76

Dendan, etxeko lanetan edo zaharrak zaintzen lan egingo nuke. 943 75 17 43.

Arratsaldeetan haurrak zainduko nituzke. Espe-rientzia. 943 76 03 76 (Maite).

Uztailen zehar umeak zainduko nituzke. 943 76 07 50 (gauetz).

Etxeko lanak egin edo haurrak edo zaharrak zainduko nituzke. 943 76 29 14 (Ana).

Eskaerak

Antzuolan pertsona bat behar da umeak zain-
tzeko irailetik aurrera. 943 76 65 00.

Antzuolan neska behar da uztailen eta abuz-
tuan etxeko lanakegin eta haurra zaintzeko. 943 76 63 41.

Ingelesetik euskarara itzulpenak egiteko laguna. 943 76 65 12.

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak

OHO klaseak ematen dira Antzuolan. 943 78 71 32.

Ingeles klaseak. 943 76 53 88 (Rosa).

OHO eta ingeles klaseak ematen ditu. 943 76 17 18 (Jesus).

Mate klaseak. 943 76 03 72 (Nerea).

Majisteritzako ikasleak OHOk klaseak ematen ditu. 943 76 47 30 (Aitziber).

Fisika, informatika eta mate. 943 76 46 03.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak ematen dira. 943 76 25 79.

Majisteritzako ikasleak OHOk klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

Eskaerak

Alemaneko klase partikularrak hartuko nituzke. 943 76 28 33 (Iker).

Ekonometriako klaseak hartuko nituzke. 943 76 26 82 (gauetz).

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Golf TDI kotxea salgai.

Deitu 943 76 64 70 telefonora (Mikel).

Peugeot 205 kotxe gorria salgai. 943 76 21 70 (Ander).

Roller jet karabana. 5 plaza. 943 76 44 05.

Peugeot 309 SR automobila salgai. 100.000 Km. Deitu 943 76 14 64 telefonora.

Seat Ibiza (BI-BF), diesela. 943 76 09 12.

Opel Kadett (SS-AC) salgai. 943 76 16 31.

Golf GTI (SS-AH). 16 balbula. 943 76 33 26.

Kawasaki GPX 600 R motorra. 943 76 09 17.

Erosi

Remolkea (2 m.ko kaja-duna) erosiko nuke. Deitu 943 73 19 60 telefonora.

7. ANIMALIAK

Saldu

Hispaniel-breton txakurkumeak salgai. 907 93 72 71 (Pablo).

Hiru koloretako setter

txakurkumeak salgai. Deitu 943 76 53 92 telefonora.

8. DENETARIK

Saldu

Avid bozgorailuak salgai. 943 76 76 90.

Logela salgai: bi ohe txiki, muelle eta guzti. Deitu 943 76 57 05 telefonora.

Motorrean ibiltzeko emakumezkoaren gore-tex BMW traje berria salgai. 943 76 09 17.

Orbea Sherpa bizikleta salgai. 943 76 52 76.

Mendiko bizikleta salgai. 943 76 49 39.

Idazmakina elektrikoak salgai. 943 76 10 63.

Kitarra elektrikoak eta anplifikadorea salgai. Deitu 943 76 34 31 telefonora.

Bizikleta estatikoa salgai. 943 76 07 88.

Erosi

Diska zaharrak (txikiak zein haundiak) erosten ditut. 943 52 65 77.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

MULTIMEDIAKO PROGRAMADOREA
Deba Garaia. 9545/0

ILEAPAINZAILEA, emakumea
Bilbo. 9486/3

AEROBIC/GIMNASIA MONITOREA
Elorrio. 9482/3

KRISTALEROA
Bilbo. 8855/4

MUSKULAZIO MONITOREA
Durangaldea. 9481/3

SUKALDARIA
Elorrio. 8423/1

ARTE MARTZIALE-TAKO IRAKASLEA
Durangaldea. 9483/5

ILEAPAINZAILEA, emakumea
Bilbo. 8888/4

6 SOLDATZAILE-GALDARAGILE
Urretxu. 8938/2

ILEAPAINZAILEA, emakumea
Bilbo. 9320/2

MONTADORE MEKANIKOA
Goierri. 9186/5


ILEAPAINZAILEA, emakumea
Bilbo. 9432/1

KOMERTZIAL TEKNIKARIA
Gipuzkoa. 9145/2

MAKINA ERRAMIN-TAKO MANTENI-MENDURAKO MEKANIKARIA
Deba Behea. 9091/5

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.



BOLINTXO ZURRADERO

Adi! Adil Adil!

Saloura bidaia bat zozketa-tuko dugu 98-6-30ean:
Astebetekoa -
2 lagunendako -
3*** hotela - Pentsio osoa -
Port Aventura-ko 2 sarrera.

Zurradero 2, behea. Tf. 943 76 01 26

FRANTSES IRAKASKUNTZA

Ikastaro trinkoak uztailaren 6tik 24ra

Izena emateko epea: uztailaren 3ra arte.

Informazio gehiago:

Mizpildi 3, 1-ezkerra. BERGARA.
Tf. 943 76 30 55

Orduetgia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00



Gozogintzan aintzindari.

Maite Aurrekoetxea. Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoko zuzendaria
“Esperientzia gutxiko musikariekin lan egitea oso gustoko dut; erronka bat da niretzat”

Urtero sasoi honetan egin ohi duen moduan, Musika Eskolak Udaberriko jai kontzertua emango du domekan. Musika Eskolako taldeek kontzertua eskainiko dute Udal Pilotalekuan eguerdiko 12:30etan eta, ondoren, herri bazkaria izango dute Espoioian. Maite Aurrekoetxea, Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoko zuzendari berriarekin berba egin dugu bere lanaren nondik norakoak ezagutzeko.

Maite Aurrekoetxeak (Bilbo, 26 urte), aurtengo otsailetik zuzentzen du Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoa. Iazko Gabonak arte lan horretan jardun zuen Alfredo Gonzalez Chirlaquek eskola laga ondoren, bilbotarra aukeratu zuen zuzendaritzak hau ordezkatzeko.

Maite Aurrekoetxeak akordeoi titulua du eta Konposizioa ikasten ari da Gasteizko Kontserbatorioan (Carmelo Bernabarekin) eta Orkestra Zuzendaritza Madrilen (Enrique Garcia Asensiorekin). Halere, berak gustokoen duena abesbatzekin lan egitea da eta koro zuzendarientzako Hondarribiko eta Zarautzeko ikastaroetan ibilia da; horretaz gain, Barakaldoko Zigor koroa zuzentzen du. Bestalde, Bribiescako institutuan (Burgos) musika klaseak ematen ditu. Bilboko eta Euskadiko Orkestan zuzendari lanetan ibili den Juanjo Menarekin harreman handia dauka.

G. Hainbeste saltsatan sartuta egonda, bizitzeko astirik baduzu?

E. Hori esaten didate lagunek. Egia



Maite Aurrekoetxea astean behin etortzen da Bergarako Musika Eskolara.

esan, errepidean bizi naiz, beti hara eta hona. Gurasoek ia ez naute ikusi ere egiten. Baina, tira, horixe da aukeratu dudana eta musikarako bizi naiz..., ez daukat beste ezertarako astirik.

G. Zer moduz Bergaran?

E. Oso gustora nago. Orokorrean, esperientzia gutxiko musikariak ditut, aurtien hasi berriak, eta horiekin lan egitea oso gustoko dut, erronka bat da

niretzat. Hutsetik hasi gara eta musikariek oso jarrera ona erakutsi dute hasieratik. Niretzat ustekabe atsegina izan da eta entsaiuetan oso ondo pasatzen dut. Astean behin etortzen naiz Bergarara eta Bilbora itzultzean oso gustora sentitzen naiz.

G. Zer iritzi daukazu Udaberriko jaiaren moduko ekimenei buruz?

E. Oso ideia ona iruditzen zait, ez

iletxo
 ileapaindegi mistoa
BEGOÑA ARZELUS
 A. Fleming 7 BERGARA
 ☎ 943 76 53 15

BUNKY
 ume eta gazteentzako oinetakoetan aukera aparta
 Chicco • Hamiltons • Babybotte • Chupetin • eta abar
 Artekalea 29, BERGARA. Telefonoa: 943 76 72 21

**Aldoka
 Maldoka**
 TABERNA
 Kruz Gallastegi BERGARA

dut horrelakorik ezagutzen beste inon. Eskola honetan oso giro polita aurkitu dut; nabarmentzekoa da, esate baterako, eguakitzetan, entsaiua amaitzen dugunean musikari batzuk bertan gertatzen direla eta inprobisatzen hasten direla. Bilboko kontserbatorioan ez dago horrelako girorik, inperpersonalagoa da; hemen musikarekin gehiago disfrutatzen du jendeak.

G. Musika Eskolako orkestaz gain, beste orkesta sinfoniko bat daukagu Bergaran. Zer deritzozu?

E. Ez dut larregi ezagutzen eta, printzipioz, ondo iruditzen zait. Bergara moduko herri batek orkesta sinfonikoa edukitzea ez da normala, baina Udalak ordaintzen baldin badu, oso ondo, beti ere eskolako orkestari durulaguntzak txikitzen ez bazaizkio. Eskolako orkesta bertako musikarientzat irteera bat da, benetako harrobia, eta hori oso inportantea da. Eskolako musikarientzat txarra izango litzateke, hemen ziklo bat bete ondoren, Bergarako Orkestra Sinfonikorako atek itxita edu-

kitzea. Euskadiko Orkestarekin hori gertatu da urteetan eta orain, badirudi, bertako musiko gazteei atek zabaltzen ari zaizkiela. Zenbat eta orkesta gehiago izan hobeto, hori argi dago, baina gauzak ondo antolatu behar dira.

G. Konposizio ikasketak bukatzen ari zara. Lanik estreinatu duzu?

E. Gasteizen Elektroakustika laboratorioan nabil eta lan batzuk idazten ari naiz. Laukote batentzat idatzitako lan bat estreinatuko dut; Iñigo Aizpeolea irundarrak estreinatuko du Granadan.

G. Udaberriko Kontzertua, orkestra berriztu honen estraineko zuzeneko emanaldia izango da. Zer prestatu duzue?

E. Vivaldiren urtarok eskainiko ditugu. Otsailean, hasi nintzenez, Udaberriko kontzertuarena aipatu zidaten eta ez nuen uste kontzerturako prestatura ailegatuko ginenez. Halere, gogor entsaiatu dugu azkenaldian, astean birritan, eta uste dut ondo irtengo dela dena. B

erreseinak



Bernardo Atxaga
Groenlandiako lezioa
Kontakizun laburrak

Autorea Estatu Batuetan zegoela, orain hilabete, plazaratu zen Atxagaren azken liburua. Era askotako hamabost saiakera labor biltzen dira bertan, alfabeto gisa antolatuak eta egitura eta gaiari dagokionez, oso bariatuak: eroak, HIESak jotakoak, fantasmak, leiendak, poesiak, Euskal Herriari buruzko gogoetak, narrazioak... Atxagak, Jose Luis Zumetaren erakusketa bat zela-eta idatzi zuen bere lehen alfabetoa, orain dela hamar bat urte. Beste batzuk, ostera, denboran gertuagoko gertaeretan oinarritutakoak dira. Ulergarritasuna, sendotasuna, umorea eta abilitate komunikatiboa nabarmendu daitezke "Groenlandiako lezioa"n.

- Erein. 173 orr. 2.500 PTA

Udaberriko jai kontzertua: urteko uzta, plazara

Udaberriko jai kontzertuan urtean zehar Musika Eskolako geletan landutakoa plazaratzen dute eskolako taldeek. Aurten ere, Orkestra sinfonikoak, Akordeoi orkestak, Haurren abesbatzak eta Gazteen bandak hartuko dute parte kontzertuan domekan Udai Pilotalekuan. Orkestra Sinfonikoak, Maite Aurrekoetxearen zuzendaritzapean, A. Vivaldiren "Urtarok" (udazkena eta negua) eskainiko du; Maria Jesus Ugaldek zuzendutako Akordeoi orkestak, berriz, M. Seiber-en "Irische suite-a" emango du; jarraian, Haurren abesbatzaren txanda helduko da eta T. Aragües-en "Jimmy Potxolo" kantaren aukeraketa eskainiko du, Kristina Larrañagaren zuzendaritzapean eta Ainhoa Ernabide pianojolearen laguntzaz; Alberto Laskurainek zuzentzen duen Gazteen bandak, J. Kander-en "Cabaret" joko du lehenengo eta, ondoren, Haurren abesbatzaren laguntzaz, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren "Udaberriko txoria". Kontzertua amaitzeko, parte hartuko duten talde guztiek, Rodgers/Hammerstein-en "The sound of music" piezaren aukeraketa bat eskainiko dute.

Kontzertua eguerdiko 12:30etan hasiko da eta aurretik, 10:30etan, kalejira egingo du Gazteen bandak. Kontzertuaren ostean, berriz, herri bazkaria izango da Espoloiaren eta, bazkalostean, musika jaialdia: diskoak, karaokea, jokoak...

lehiaketa

Andres Calamaro

Andres Calamarok "Alta Sociedad" bere azken lana aurkeztuko du Jam aretoan datorren zapatuan, hilak 20. Jam-en eskutik, BERRIGARAK sei sarrera zozketatuko ditu, galdera hau zuzen erantzuten dutenen artean:

Ze taldeko abeslari izan da orain dela gutxira arte Andres Calamaro?

Jarri erantzuna eta zure izen-abizen eta telefonoa paper batean eta ekarri edo bidali BERRIGARA astekarira (Errotalde jauregia z/g. 20570 Bergara), eguna baino lehen.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Mugimendu ekologistetan jarduten duena. 2. Hobedunak. 3. Bibliako pertsonaia. Opila. 4. Beheko suko gakoa. Hiru. 5. H₂O. Arrantzaleek beren tresnak uzteko tegia. Nitrogenoa. 6. Ardoa. Röntgen. Errepikatuz, gorotza. 7. Azkenekoa eta lehenengo. Zuaiska mota. 8. Bat. Nire. Tu. 9. Hotzak eragindako hantura. Euskaraz eta kitto! 10. Apaiza. Orain.


Goitik behera

1. Neurketa. 2. Suak eragindako ke beltza. Osperean erdian. 3. Aran mota. Denbora tarte. 4. Beharra. Ibiliaz. 5. Ogi, hitz elkarketan. Buruko estalkia. 6. Janari ongailua. Uranioa. Bokala. 7. Gara. iratzea. Barre. Oxigenoa. 8. Asiako estatua. Uso ar. 9. Eskaini eta ez eman. Burdinazko lokarria. 10. Insektu mota. Ukitu aditzaren infinitiboa.

Soluzioa

1. Etxeak. 2. Kedarra. 3. Etxeak. 4. Etxeak. 5. Etxeak. 6. Etxeak. 7. Etxeak. 8. Etxeak. 9. Etxeak. 10. Etxeak.

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezar

Zein da ertaroko dorretxearen hondarren gainean XV. mendean eraiki zuten etxe honen izena?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Artekale** pizzerian izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Ainara Altun**arentzat izan da. Zabala jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Ainarari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Elizalde-Berri**. Galde Debalde: **1-A, 2-C, 3-B**.

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izena-deitura: Telefonoa:

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!



Artekalea 1, BERGARA
Tf. 943 76 72 00

Zumaiako Cantera baserrikoa jaiotzez, Joxe Antiak (37 urte) 17 urte daramatza gure artean lanean. Gaztetan hasi zen harakin ofizioan lanean eta gustoko du bere lana. Astean, domeka arratsaldean bakarrik hartzen du jai.

Harakin, bokazioz eta ofizioz?

Eskola ez zitzaidan gehiegi gustatzen eta honetan hasi nintzen.

Emakume ala gizonetzko gehiago dator dendara?

Emakumeak.

Zer behar da dendari ona izateko?

Ofizioa gustatu eta saiatu, egiten duzuna ondoen egin.

Lanean ordu pila ematen duzu...

Egunero, 15-16 ordu. Domeka arratsaldean ixten dugu bakarrik.

Lanerako sasoirik onena?

Gabon ingurua.

Zer da bezeroek gehien apreziatzen dutena?

Lehenbizi kalitatea; gero tratua.

Oso zorrotzak dira?

Bastante bai.

Zu zeu mutur fina zara?

Bai, gauza onak gustatzen zaizkit.

Haragi onena, nongoa?

Hemengoa, baserrietakoa.

Kanpoko haragirik saltzen duzu?

Ez.

Txuletarik onena non jan duzu?

Osintxuko erretegian.

Haragia ala arraina?

Biak, baina haragia nahiago.

Dietarik egiten duzu?

Ez.

Kirola egin ala ikusi?

Ikusi.

Joxe Antia

Gustoko kirol bat?

Arrauna.

Zumaiarrek zer egingo dute aurten?

Gauza gutxi, ez daukagu ekipo onik.

Probarik gustokoena?

Kontxako Bandera, urtero joaten naiz.

Sukaldari ona zara?

Zartainekoa bakarrik.

Plater eta postre bat?

Piper beteak eta buztana; postrea, flana.

Ogitarteko bat, zerena?

Urdaiazpikoarena.

Denbora librea zertan igarotzen duzu?

Mendian buelta bat ematea gustatzen zait.

Bertute bat eta defektu bat?

Bertutea, lana gustatzen zaidala; defektua, denbora gehiegi ematen dudala horretan.

Mania bat?

Garbitasuna.

Animalia bat?

Txekorra.

Telebistako programa bat?

"Cronicas marcianas".

Emakumeengan zertan fijatzen zara?


Goxoak diren hitz egiteko garaian.

Oporretan nora?

Inora ez. Ez dut oporrik hartuko.

Mundiala jarraitzeko prest?

Ez. B



BERGARAKO UNEDen UDAKO IKASTARO INTENTSIBOAK

**INGELES A
FRANTSESA
ALEMANA**

M A T R I K U L A Z A B A L I K !

Ekainaren 24tik uztailaren 14ra.

- GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ.
- ADIN GUZTIAK: HAUR, GAZTE ETA HELDU
- EGUNERO 3 EDO 4 ORD'!

INFORMAZIOA:

Bergarako UNED.

San Martin plaza z/g (3. pisua)

☎ 943 76 06 87





Bergarako Erreketeak Zaragozan

Ondo Bihurtu taldeak Pazkuen inguruan antolatu dituen ekitaldiak ikusmin handia sortu dute. Udaletxeko Pleno aretoko erakusketa oso arrakastatsua gertatu da eta bertakoek ez ezik, kanpotik etorritako hainbat lagunek ere ikusi dute. Zaharrak, batez ere, interes bereziarekin jarraitu dituzte erakusketan ipinitako argazki, idazki eta bestelakoak.

Bestalde, eguazten eta eguenean, gerra zibilar buruzko pelikulak eskaini ziren Novedadesen eta hauek ikustera ere jende asko joan zen. Udaletxeko erakusketa domekan itxiko da eta bertan erakutsi den hainbat material, Biasteriko

Adiskideen Elkartekoak lagatakoa, Aretxabale-tara eraman nahi dute, bertan erakusteko.

Aste honetako argazkia, Udaletxean ikusgai daudenetako bat da. Bertan, Bergarako Erreketeak, San Martin Agirre konpainiakoak, agertzen dira, Terueleko batailaren ondoren, Zaragozan (1937). Hauek dira, ezkerretik hasita:

Zutik: Vicente Pildain, Aurelio Bilbao, Agirre, Joakin Osinaga eta Antonio Gutierrez.

Makurtuta: Ramon Garitano, Kruz Gallastegi, Pedro Aranburu eta Jesus Urkiola.

Argazkia: Ondo Bihurtu



☎ 943 76 20 61



Zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

JAKINA

BAINUGELAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK



*Estilo guztietako zeramikak
era guztietako erreformetarako*

San Lorentzo Industri Poligonoa,
Amillaga 10, behea. BERGARA.
Telefonoa: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR 

Sukaldeko altzariak

a, eme...
interiores



Garibai, 9
20.500 ARRASATE
(GIPUZKOA)
Tel.: 79 15 03
Telefax: 79 14

a, eme... interiores



%20
%30
%50

**Altzari
erakusketak
aldatzen ari ga**

grupo



**Amuebladora
Mondragonesa**



etxeko ekipamendu oso